

BATZUETAN BI ERREGEK ERE EZIN...

Mahai baten alde batean dago Xabier, Gaztetxeko bigarren solairuko gela ilunean, eraikin osoko gelarik ilunenean, aurkaria parean duela. Urduri dago, baina aldi berean urduritasun hori ezkutatu beharra dauka. Tapete berdearen gainean dauden babarrun aleei begiratu eta ikusi du bederatzi tantoko aldea ateratzen diola. Zerbait egin beharra dauka irabazteko; izan ere, jokatzeko ari direna ez da makala. Aurkaria kartak banatzen hasi da poliki-poliki. Lehenengo karta. Bueno ez da oso ona, laukoa. Horrekin ezer gutxi egin dezake. Hurrengo karta laukoa berriro; gauzak politagoak jartzen hasi dira... Eta bukatzeko, bi errege. Egoera honekin jokalaria arrunt bat mundua jatera joango litzateke, baina Xabier ez dago pozik. Bost errege etorriko balitzaizkio ere, gaur ez litzateke pozik egongo. Parean Jon bere kartak begiratzen hasi da, oso begirada zorrotzarekin. Bere pentsamenduak irakurtzen saiatzen da Xabier.

Txiki-txikitatik ezagutzen du Jon. Bi urterekin haurtzaindegian hasi zirenetik batera ibili ziren urte hauetan guztietan. Ikastola berera joan ziren, futbol talde berean jokatzeko zuten, koadrila berean ibiltzen ziren eta, gainera, bizilagunak ere baziren. Horregatik, oso ondo ezagutzen dute elkar, eta horregatik, Jonek lau kartei begirada bat bota dienean, Xabierrek ongi nabaritu du ezkutatu ezin diren barretxo tipiko horietako bat atera zaiola. Akats larria muslari fin batentzat, ez bada gezurretan ari behintzat. Baina Xabierrek badaki ez dela gezurretan ari, hori ez baita inoiz izan bere dohainetako bat. Umetatik egiaren zaindaria izan da, batzuetan gehiegi ere. Oraintxe etortzen zaizkio gogora umetako kontuak; nola duela ez urte asko, 5. mailan zeudenean, jolasean ibiltzen ziren.

Herriko Ikastolara joaten ziren, nola ez, biak batera. Goizeko 08:35ean geratzen ziren etxe azpiko parkean beste lagunekin, bederatzietarako Ikastolan egoteko. Gainera, astelehenetan, Mertxe gizarteko andereño petrala izaten zuten lehenengo orduan. Beti egoten da horrelako andereño bat ikastola guztietan: arrazoirik gabe, beti haserre egoten dena, errieta egiteko prest, bere *hobbya* izango balitz bezala. “Birjina ote zen? Birjinak umore txarra dutela esaten dute”, galdetzen dio batzuetan Xabierrek bere buruari. Bada, esan bezala, astelehenetan andereño hori izaten zuten, eta, minutu bat berandu iritsiz gero, orduan bai komeriak entzun beharko zituztenak; ez klase garaian, orduan ezin baitzen denborarik galdu, beraientzat hain garrantzitsua zen atsedeneko garaian baizik.

- Nola da posible? Berriro ere berandu? Ez al duzue ulertzen zer diren bederatziaik? Zuen erruz klasea moztu beharra izan dut... –betiko erreto^{lika} botatzen zuen euri zaparrada baten moduan; eta beraiek, aterkirik gabe babesteko.

Baina orduan sartzen zen Jon arazoa konpondu nahian, eta bere betiko egiaren txerto hori jasota:

- Eske kromotan ibili gea, ta pasa in zaigu denbora! –gauzak hobetu baino gauzak okertu egiten zituen eta denak kromorik gabe geratzen ziren. Gero konturatzen zen beharbada isilik egon izan balitz, hobe izango zela; egia, baina, barne-barnetik ateratzen zitzaion. Mutil ona zen eta nahigabe ere egia esaten zuen. Orduan, lagunak berarekin haserretzen ziren, baina Xabierrek beti defenditzen zuen.

Lagunen arteko giroa oso ona zen, bestela. Klaseak amaitu eta patioko ordua hasten zen, eguneko momenturik garrantzitsuena. Bertan jokatzeko zen “Izarren Ligako” futboleko partidua (edo, behintzat, horrela zirudien beraiantzat). Xabier oraindik gogoratzen da zein postutan jokatzeko zuten: erdilaria zen. Harro sentitzen da bere ustez zeukan kalitateaz. “Orduan bai jokatzeko niala ondo, alde batetik bestera korrika sasoi betean. Tabako honek zeharo izorratu zidak”. Eta egia da. Ez zen batere jokalaria txarra. Erdilari petoa, golak sartu baino gehiago azkeneko pasea aurrelariari ematen zionetako, hau da, Joni. Bien artean urrezko futboleko bikotea osatzen zutela esaten zuten, Nihat eta Kovacevick bere garaian Errealean osatzen zutena baino hobea.

Ikastola amaitutakoan, etxera joan, bokadiloa prestatu, baloia hartu eta denak kalera jolastera. Gehienetan futboleko ibiltzen ziren berriro, baina beste mota batzuetako jokoetan ere ibiltzen ziren. Hori izaten zen astean zehar euren egun arrunt bat. Hori bai, gero asteburua zetorren. Larunbat goizero futbol partidua izaten zuten berriro (harriztekoa da hainbeste futbolarekin inor futbolari atera ez izana koadrilan). Eguerdian bazkaldu, askotan batak bestearen etxean egiten zuten, eta Play Stationean partida bat edo beste egiten; eta arratsaldean kalera berriro zortziak arte. “Horiek bai garai onak”, pentsamendu horiekin guztiekin irribarre txiki bat atera zaio Xabierri.

- Zeri egiten diok barre? Hasi hadi, behingoz, hitz egiten!

- Lasaitu hadi, ee! Hiru tanto. Enbido –esan du Xabierrek haserre bi erregeei berriro begiratu ondoren.

- Euki

Baina Xabier gehien haserretzen duena ez da Jonen tonua. Horretara dagoeneko ohitu da. Orain dela gutxi arte bere lagunik onena zenarekin, hil ala biziko mus partida batean aritzeak, erabat elkar ikusi ezinik. Horrek bai haserretzen duela eta ez dio ondo pentsatzen uzten. Bueno baina partidari zentratu beharra dauka.

- Txikira, paso –“ezin txikira jo, handira ziur joan eta gero”, pentsatzen du Xabierrek.

- Bost!

- Paso, paso –“Nahita nahiez gezurra esan du bietako batean.”

Jonek irribarre maltzur batez jaso du puntua. Xabierrek berriro tapeteari begiratu dio. Dagoeneko 22 puntu! Bere babarrun aleei begiratu eta... Oraindik 12! Hiru usteletara da partida eta dagoeneko bina dihoaztelarik... zerbait egin beharra dauka! Ezin du galdu! Urduritasun pixka bat nabaritzen du gorputzean. Lasaitu beharra dauka. Mahaitik altza da kartak eskuan eramanda (jada ez baita fidatzen Jonez).

- Nora hoa?! –galdetu dio Jonek.

- Hi lasai! Baso bat ur bila besterik ez nijok eta.

Gaztetxeko gela ilun hartatik atera eta eskailera beheara joan da baso bat ur hartzeko. Zintzurra busti du buruari bueltak ematen dizkion bitartean. Nola da posible puntu honetaraino iritsi izanak? Beste era batera ezin al da konpondu? Horiek denak egun

hauetan zehar pasa zaizkio burutik Xabierri. Bera, egia esan, ez zegoen Jonekin haserre. Bueno, egia esan, bai. Momentu honetan gehien maite zuena kendu nahi baitzion. Baina ez zuen Jonekin haserre egon nahi, lagun handia baitzuen. Nola demontre sartu ziren irtenbiderik gabeko labirinto honetan? Non hasi zen dena?

Hamahiru urte arte dena berdin joan zitzaien. Etxetik eskolara, eskolan lasai-lasai ikasten egon, alde batetik bestera jolasean ibili eta etxera nahiko, goiz afaldu eta ohera bizkor joateko. Adin horretako umeei gustatzen zitzaizkien gauzak zituzten gogoko: bideojokoak, kalean jolasean ibiltzea, bizikleta hartu eta Altzagaratera lasterketa... Baina nerabezaroan sartzearekin batera, gauzak aldatzen joan ziren.

Adin berezia izaten da 13 urtekoa. Badirudi, egun batean esnatu eta beste begi batzuk jarri dizkizutela. Mundua erabat desberdina ikusten duzu. Ohetik altxa eta jostailu pila ikusten dituzu zure gelan. Atzo gauean jolasean erabili zenituen lasterketarako kotxe txikiak ikusten dituzu eta jada ez zaizkizu gustatzen. Lehen kalera goizeko hamarretan irteteko gai zinen lagunekin segituan elkartzeko, eta, orain, eguzkiak begietara min egingo balizu bezala irteten zara kalera. Nahiago duzu etxean goxo-goxo geratu egun osoa ezer egin gabe. Nola ez, lehen gurasoek esaten zutena sakratua zen eta orain kontra egitea besterik ez zaizu etortzen burura. Hamahirugarren urte betetzeak badu zerbait oraindik oso ondo azaldu ezin dena. Adituek esaten dute hormonon garapena dela arrazoi nagusia baina oraindik gauza batzuk ezin ditu inork azaldu. Naturak horrela idatzi zuen zerbait da eta denak pasatzen gara garai honetatik.

Bada, Jonen eta Xabierren bizitzan ere hainbat aldaketa gertatu ziren. Baloiak, pilotak, kromoak eta bideojokoak gustatu ordez, pixkanaka beste gauza batzuetan hasi ziren. Parranda egitea gustatzen hasi zitzaien, parranda ere beharrezkoa baita bizitza honetan. Eta parrandan sartzeak nahigabeko aldaketa batzuk ekarri zituen. Coca cola ordez, kubata; eta, txupatxusa ordez, zigarroa. Eta ez dut esaten gaizki egin zutenik; izan ere, hori ere bizitzaren zati bat da, beti ere neurria hartzen jakinez gero. Baina alkohola edaten hasteak eta noizbehinka zigarrotxo bat erretzeak ez zuen ezertarako bi lagun handi hauen arteko haserre piztu. Lagun ezin hobeak izaten jarraitu zuten urte horietan guztietan. Asteburuetan kalera irteten ziren koadrilarekin eta hizketaldi luzeak izaten zituzten, jada baloia beheko trastelekuan baitzeukaten gordeta; Errealaren partidak ikustera joaten ziren... Beraien arteko harremana ez zen aldatu gehiegi horregatik. Beraien bizitza aldatu zuena eta mus partida hau jokatzera bideratu zuen arrazoa beste bat izan zen, eta nerabezaroan sartzearekin erlazioa dauka: emakumeak.

Bai, adin horretan gutxi gorabehera neskak gero eta gehiago gustatzen hasi zitzaizkien. Sara zuen izena Xabierren lehenengo neskak. “Ederra zuan benetan. Begi urdin eta bular dotore horiekin”, gogoratzen du Xabierrek. Oso ederra zen. Adin berekoa. Baina oraindik umea zarenean izaten diren “lige” horietako bat izan zen. Ia beti inora joaten ez diren horietakoa. Beste hainbat neska ere eduki zituen urte hauetan zehar. Ezin da esan *Casanova* bat zenik, baina bazuen bere pikardia eta neskei hori asko gustatzen zitzaien. Jon, berriz, lotsatixeagoa zen neskatarako. Bazeuden gustatzen zitzaizkion neska ugari, baina horiek ezagutzeko saltoa ematea kostatzen zitzaion. Ezagutzen zuenekin ez zuen arazorik. Beste berri batzuk ezagutzeko, aldiz, oso lotsatia zen eta horregatik ez zuen Xabierrek bezain arrakasta handia. Hala ere, bien artean paktu bat zuten: batari neska bat gustatzen bazitzaion, bestea inoiz ez zen neska horren atzetik joango, lagunari min ez egitearren.

Baina egun madarikatu horretan (Xabierrek horrela gogoratzen du) dena aldatu zen. Hamazazpi urte zituzten jadanik. Garai hartan biak neskari gabe zeuden. Larunbata zen eta Ormaiztegiko festak. Hotz egiten zuen baina, ze demontre! Festara joateko inoiz ez dago pegarik! “Han berotuko gaittuk!”, esan zuen Xabierrek bere lagunak festetara joateko animatu nahian. Azkenean, lagun guztiak joan ziren Ormaiztegira Jon izan ezik. Izan ere, egun hartan Jon gaixo zegoen. Azken trena hartu zuten, txartela erosi behar -jarri dituzten beste makina horien erruagatik-, eta martxa. Hamar hamabost minutuko bidaia zuten eta, bitartean, lagun bakoitzak egun horretan zein neskaren bila joan behar zuen hizketan aritu ziren. Garai hartan denen ahotan zebilena Oihane zen. Segurako ile hori bat. Lerdea dariola egoten ziren berari begira koadrilako guztiak. Xabierren iritziz ez zen horrenbesterako. Ile horia izateagatik abantaila zuela zioen, ile marroia izango balu ez zuela horrenbesteko arrakastarik izango.

Hala bada, azkenean iritsi ziren Ormaiztegira eta iritsi bezain pronto bertako lehenengo tabernara sartu ziren. Xabierrek garagardo bat eskatu zuen eta han jarri zen dantzan. Taberna nahiko beterik zegoen. Anderrek bi txupito jarraian hartu zituen eta bere ohiko dantzekin hasi zen. Oso gaizki egiten zuen dantza, baina barregarria zen eta tabernari bizitasuna ematen zion. Gaua aurrera zihoan eta bat-batean, musika aldatu zen. Xabier ez da gogoratzen zein abesti jarri zuten, baina oso lasaia zen. Aldi berean Saioa sartu zen tabernako atetik. Itxaron pixka bat. Lehenik, Saioa nor den azaldu beharko dizuet.

Saioa Xabierren gelan txiki-txikitatik ibili zen neska bat zen. Begi urdina, ile beltza eta oso oso neska atsegina, beti umore onez ibiltzen den horietakoa. Ez zen Xabierren gustukoa, lagun onak besterik ez ziren. Joni, aldiz, izugarri gustatzen zitzaion neska hori. Azkeneko bi urte hauek neska horren atzetik ibili zen eta dagoeneko amore ematen hasia zen. Bada, ez dakit egun horretan zer gertatu zitzaion Xabierri, baina Saioa inoiz baino ederrago ikusi zuen. Tabernara izar bat sartu izan balitz bezala izan zen, txundituta uzten zaituen horietakoa. Galtza bakero batzuk zeramatzan eta tirantedun niki urdin bat, oso polita, baina egiten zuen hotzerako ez oso aproposa. Hori bai, eta Xabier horretaz segituan ohartu zen, jantzi horrek bularrak handiagotzen zizkion. Saioa barrara joan zen eta garagardo bat eskatu zuen. Xabi, bitartean, begiak bere gainetik kendu ezinik. Garagardoari trago handi bat eman, lurrean izkina batean utzi eta berarengana hurbildu zen. Pixkanaka-pixkanaka gerturatu eta nahita bultzada bat eman zion, baina disimuloz, nahigabe egin izan balu bezala.

- Hombre, Saioa! Aspaldiko! Zemuz?

- Xabi? Bai, bai Xabi! –Saioa builaka- Oso ondo eta zu? –eta besarkada handi bat eman zion Xabierri. Xabi bero-bero jarri zen Saioaren bularrak bere gorputzarekin estu-estu jarri zirenean. Saioa nahiko edanda zihoala ikusi zuen gainera. Gau osoa batera eman zuten. Taberna guztietara eskutik emanda joaten ziren eta tarteka muxutxo bat edo beste ematen zioten elkarri. Bere koadrilako lagun guztiek ikusi zituzten batera alde batetik bestera ibiltzen. Eta hor etorri ziren komeriak.

Hurrengo egunean, lagunak herriko tabernan geratu ziren, Errealaren futbol partidua ikusteko. Xabi pixka bat beranduago iritsi zen. Sartu zenean, han ziren lagun guztiak Jon barne. Eta azken honek, bere betiko lagunak, inoiz bota ez zion begirada zitara bota zion. Begiradek hilko balute, honek hortxe utziko luke Xabier. Segituan ulertu zuen zer gertatzen zen, baina ezer gertatu izan ez balitz bezala jarraitu zuen. Partidu osoan

tentsioa nabaritu zen lagunen artean. Inork horri buruz txintik esan gabe amaitu zen partidua, Errealak irabazi 1-3 eta jendea etxerantz abiatzen hasi zen. Nor bere bere bidetik eta Mikel, Jon eta Xabi, beti bezala, beraien bidetik, Mikel ere beraiengandik oso hurbil bizi baitzen. Mikel bere etxera igo zen eta Jon eta Xabi bakarrik geratu ziren bidean, ohikoa zen bezala urrutiago, bizi baitziren. Baina egun horretan bat-batean Jon azkarrago hasi zen oinez ezer esan gabe:

- Nora hoa hain azkar? Jon? Entzun! –baina Jonek kasurik ez. Orduan Xabi korrika hasi eta atzetik eutsi zion.

- Utzi bakean!

- Ze gertatzen zaik?

- Ze gertatzen zaidan? Ez al genian tratu bat? Ez al gintuan lagunak? Ez, ikusten diat hi putakume bat haizela, ez laguna!

- Baina zu jada ez zinen bere atzetik eta... –eta ezer gehiago esateko denborarik gabe Jonek izugarritzko ukabilkada eman zion. Orduan hasi zen borroka eta 25 urteko beste bi gazte agertu izan ez balira, auskalo zertan amaituko zukeen horrek.

Denbora asko eman zuten elkarri hitz egin gabe. Ez zioten elkarri aurpegira begiratu ere egiten. Saioa nork bereganatuko zuen borroka hasi zen. Patioetan batzuetan bat berarekin hizketan geratzen zen gelan, eta, beste batzuetan, bestea. Baina Xabier ez zegoen bere buruarekin gustura. Bere ustetan errua berea zen. Nola da posible bere lagun onenari gustukoen zuen neska kentzea! Pentsatuta zeukan, gauza pixka bat lasaitzean, barkamena eskatuko zion Joni. Baina larunbat gau batean parrandan zebiltzala lagun guztiak, hara non ikusi zituen Jon eta Saioa tabernako izkina batean “tontokeriatan”. Orduan Xabier sutu egin zen. Konturatu zen Saioa ez zela beste edozein neska bezalakoa. Berezia zen. Eta Xabierrek benetan maite zuela konturatu zen. Ezin zion Joni utzi berarekin joaten. Halako batean, Jon tabernatik irten zen eta Xabi atzetik, nahiko berotuta gau horretan pixka bat edan baitzuen.

- Ze ostiatan ai haiz?

- Neska ez dek hirea, e! Edo, agian, hiretzat bakarrik erosi behar al dek?

- Ez diat onartzen niri horrela hitz egitea, e! Nik ez diat nahi hau guztia gaizki bukatzea baino zerbait egin beharko diagu ezta!

- Gezurretan ari haiz! Oso gaizki esatek gezurra, ba al dakik? Hiri bakarrik hirea inporta zaik! Agian musean egin beharko diagu, gezurra esaten oso txarra haizenez, erraz irabaziko diat.

- A bai? Ba ikusiko diagu!

Eta horrela, beroaldi ustel baten ondorioz, orain Xabier gaztetxeko eskailera gora doa bueltan partida amaitzera eta ahal bada irabaztera. Egia esan, lotsa pixka bat ere ematen dio. Hogeita batgarren mendean eta emakume batengatik, mus partida bat jokatzen. Horrela hitzartu zuten. Mus partida galtzen zuenak Saioaren bizitzatik alde egingo zuen,

ez zen berarekin hitz egitera ere joango. Nola da posible? Nolako astakeria egin zuen pentsatzen jarri da orain. Baina musulari on batek ezin atzera egin, hitzarekin aurrera atera behar. “Jokoa ez da errenta” esaten zion bere aitona gaztetan. Ez zion bizitzan zehar kasu handirik egin esaldi horri, baina orain konturatzen hasia zen agian bere aitona arrazoi zuela.

Gela ilunean sartu da berriro. Eskuineko eserlekuan dago Jon. Baina orain barrezka ari da, eta ume aurpegia dauka. Oso alai dago. Bere aurrean dagoena bera da, baina txikietan ere bai. Lurrera erori da eta segituan joan zaio Jon altxatzen laguntzera. Ezkerreko eserlekuan, berriz, Saioa dago eserita. Irribarrez hau ere, beti bezala. Inoiz baino ederrago dago soineko luze batekin, lehengo eguneko Ormaiztegiko festetako musika entzuten.

Bere onera bueltatu da Xabier. Aurpegi serioa jarri du eta eserlekuan eseri da. Bere kartei begiratu die berriro. Bi errege eta bi lauko. Pareetara jokatzeko txanda da.

- Enbido!

- Hordago! –esan du Jonek ziurtasunez.

- Atera!

Jonek bere lau kartak jarri ditu mahai gainean. Hiru bateko eta erregea.

- Irabazi duzu –lehor bat esan dio Xabier. Kartak besteen tartean sartu ditu erakutsi gabe eta joan egin da gaztetxetik, burumakur.

TXINDOKI